

**INFORMATIKA ZERBITZUEN FORU ELKARTEA San (Izfe SA)
“KONPONBIDE/GARAPENEN TEKNIKARIA” HAINBAT LANPOSTU
BETETZEKO HAUTATZE PROZESUA.**

- HAUTAKETA PROZESUAN ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO HAUTAGAIEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA
- AZTERKETAK EGITEKO DEIALDIA.

Goian aipaturiko Deialdian parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea amaitu eta haiek Deialdiaren Oinarrien arabera aztertu ondoren, Hautatze Batzordeak,

ERABAKI DU

Lehenengo.- Hautatze prozesuan onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda onartzea eta argitaratzea, hautagaitza bakoitzaren behin-behineko egoeraren informazioa emanda (1.ERANSKINA).

Gogorarazten da, bederatzigarren oinarriaren arabera, eskaera bakoitzari esleitutako kodearen bidez adierazten dela hautagaien nortasuna, eskabidea formulario elektronikoaren bidez izapidetzeko unean esleitua. Kode hori inprimaki elektronikoa amaitzean jaso duzun bidalketa berresteko posta elektronikoan kontsulta dezakezu (formulario-zenbakia).

Bigarren.- Aipaturiko zerrenda horretatik kanpo geratu diren pertsonak 3 laneguneko epea izango dute, zerrenda argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera kontatuta, kanpoan uzteko arrazoi izan diren okerrak edo ez egiteak zuzentzeko edo egokitze hartzen dituzten alegazioak planteatzeko (2022ko urriaren 26tik 28ra). Horretarako, alegazio orri bat egongo da eskuragarri IZFE, SAREN web orrian.

Aurkezteko bidea: Posta elektronikoaren bidez izfe2022@oteic.com helbidera, 2022ko urriaren 28aren 14:00ak arte.

Behin-behineko zerrenda behin betiko bilakatuko da alegaziorik ez bada aurkezten. Alegazioak aurkezten badira, haiek onartu edo gaitzetsi egingo dira, hala badagokio, behin betiko zerrenda onartuko duen beste ebazpen baten bidez, eta aurrekoaren modu berdinean argitaratuko da hori ere.

Behin-behineko zerrendatik kanpo geratu diren pertsonak, jarritako epean alegazioa aurkeztu dutenak, badaezpada ere azterketetara aurkeztu ahal izango dira, planteatutako alegazioa data horretarako ez bada erabaki.



Hirugarren.- Azterketak egiteko Deialdia:

ONARTUAK izan diren hautagaiantzako deialdia:

PROBA	TOKIA	EGUNA ETA ORDUA
1. FASEA - Gaitasunen analisia eta/edo ezagutzen analisia	EHUko Enpresa Zientzien Fakultatea (0.3 gela) Oñati plaza, 1 - 20018 Donostia,	2022ko azaroaren 4an, ostirala, 15:30etan. Aurreikusitako iraupena: 3 ordu eta 30 minutu.

OHARRA: Probak egiteko aurkeztutako hautagaien kopuruak ez badu oinarrietan finkatutako gutxieneko irizpidea iristen, eta, ondorioz, ez bada bidezkoa aipatutako mozketak-irizpidea aplikatzea, 2. fasea egin ahal izango da aurreko faseari dagokion ebazpenari itxaron behar izan gabe.

Gogorarazten da azterketa bakoitzerako dei bakarra egiten zaiela hautagaiei. Dei egindako pertsona ez bada azterketara aurkeztzen, automatikoki galduko du azterketa horretan eta hurrengoetan parte hartzeko eskubidea, eta, horrenbestez, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da.

Hautatze batzordeak, edozein unetan, behar bezala identifikatzeko eskatu ahal izango die hautagaiei, eta, horretarako, NAN edo, batzordearen iritziz hautagaiaren nortasuna aski egiaztatzen duen beste edozein dokumentu (pasaportea, gidabaimena, atzerritarren identifikazio zenbakia eta beste) eraman beharko dute azterketa bakoitzera. Ez badute hori egiten, kanpoan geldituko dira.

Gogorarazten da deialdiarekin eta hautatze prozesuarekin loturiko informazio guztia, azterketetara joateko deialdiak barne (gutxienez 72 ordu lehenago egingo dira horiek), emaitzen argitalpena eta abar, bide honetatik emango dira: www.izfe.eus (lanpostu deialdiak atalean).

Stua. Hautatze Batzordea
Donostian, 2022ko urriaren 25ean



1.ERANSKINA:

KONPONBIDE/GARAPENeko TEKNIKARIA: Onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda.

IDENTIFIKAZIO KODEA	BEHIN-BEHINEKO EGOERA	KODEA
64654	ONARTUA	
64704	ONARTUA	
64731	ONARTUA	
64761	BAZTERTUA	2, 3
64765	ONARTUA	
64781	BAZTERTUA	3
64791	ONARTUA	
64830	BAZTERTUA	3
64881	ONARTUA	
64900	ONARTUA	
64904	ONARTUA	
65030	ONARTUA BALDINTZATUA	1
65040	ONARTUA	
65103	ONARTUA	
65154	ONARTUA	
65155	ONARTUA	
65174	ONARTUA	
65212	ONARTUA	
65213	ONARTUA BALDINTZATUA	1
65222	ONARTUA	
65231	ONARTUA	
65238	ONARTUA	
65241	BAZTERTUA	2, 3
65252	ONARTUA	
65254	ONARTUA	
65255	ONARTUA	
65259	ONARTUA	
65262	ONARTUA	
65263	ONARTUA	
65264	ONARTUA	
65269	ONARTUA	
65271	ONARTUA	
65272	ONARTUA	
65281	ONARTUA	
65347	BAZTERTUA	3
65350	ONARTUA	
65351	ONARTUA BALDINTZATUA	1



EGOERAREN XEHETASUNA:

- (1) Ez du egiaztatu euskara ezagutzaren C1 mailako edo homologagarriaren ziurtagiri ofiziala edo, hala behar badu, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak aurreikusitako salbuespenak aplikatzeko ziurtagiria.

Horrenbestez, **bigarren oinarriko e) atalean eskatzen den euskara ezagutzaren baldintza egiaztatu behar du, HABEren irakaskuntza mailen arabera erabiltzaile gaitua izatea. Arlo horretan gaitasuna duen erakunde batek (euskaltegiak) egiaztatu behar du alderdi hori. OTEIC Taldea hautagaiekin telefonoz jarriko da harremanetan proba egitera joan daitezzen dei egiteko, 2022ko urriaren 27 eta 28 artean izango dena.**

- (2) Ez du bete/egiaztatu bigarren oinarriko c) atalean eskatutako Titulazio baldintza.
- (3) Ez du bete/egiaztatu bigarren oinarriko d) atalean eskatutako Esperientzia profesionalaren baldintza. Eskatu eta onartu daitekeen dokumentazio frogagarrian ondorioztatu behar dira erantzukizunaren edukia eta maila, bai eta frogatutako esperientzia profesionalaren iraupen osoa ere, eta lortu nahi den lanpostuarekin loturik egon behar du betiere.

OHARRA:

Behin-behineko zerrendaren arabera baztertutako hautagaiei (2. edo/eta 3. egoera), baldin eta, alegazioa aurkeztu eta onartzearen ondorioz, onartu baldintzatua egoerara iristen badira (1. egoera), eta bigarren oinarriko e) atalean eskatutako euskara ezagutzaren baldintza betetzen dutela egiaztatu behar badute oinarri horretan aurreikusitako proba eginda, hautatze prozesuan onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko zerrenda argitaratu baino lehen deituko zaie proba hori egin dezaten.